

IPES ELKARTEA

Azterketa Sozialak Sustatzeko Institutua, hots, IPES Elkarte, 1976. urtean sortu zen irabazi asmorik gabe. Ez du loturarik inolako sinesbide erlijioso edo erakunde politikorekin, eta, pentsamendu kritikoaren inguruko kontzeptuak edo irudikapenak lantzeaz gain, herri-bokazioa du, sektore sozial zabalen eskura jartzen baitu prestakuntza, lankidetzak eta sormen kulturalerako espazioa.

IPES Elkartearen sostengatze ekonomikoa hasieran bazkideen esku bazegoen ere, orain erakunde publikoen laguntza jasotzen du; bereziki, Iruñeko Udalarena eta Nafarroako Gobernuarena.

Urte hauetan zehar, institutuak jardura soziokultural ugari sustatu eta koordinatu ditu, eta, ondorioz, hiriko nodo kulturala izatera iritsi da: enpresa-batzordeentzako aholkularitza, haurrentzako hiriko udalekuak euskaraz opor-garaian, argitalpenak, gida didaktikoak, garapenerako lankidetzarako proiektuak, ikerketak, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren lankidetzak, jardunaldiak, ikastaroak, tailerrak,... Bi ardatz izan ditu kontuan jardueraren zati handiengan: alde batetik, nazioarteko politika, giza eskubideak eta garapenerako lankidetzak; eta, bestetik, feminismoak, hots, mugimendu soziala eta teoria politikoa.

Lehen kasuan, IPESek arreta berezia eskaini die Afrikako gatazka-egoerei eta ahultasun-egoeran aurkitzen diren herri-gatazkei. Ikuspegi hori kontuan hartuta, Latinoamerikako lankidetzako proiektu ezberdinetan parte hartu du. Aipatzekoa da Zinema, Mundua eta Giza Eskubideak urteko programa.

Bigarren, Emakumeen eta Feminismoen Departamentuak (1985. urtean sortua) emakumeei gizarteaz aztertzeko eta eraldatzeko instrumentuak emateko ekintzak abian jarri ditu, kontzientzia hartzen eta subjektu politiko autonomo bezala jokatzeko lagun diezaieten. Era horretan, nabarmentzekoak dira Emakumeen Dokumentazio Zentroa eta Liburutegia eta Zinemaren eta Emakumeen Nazioarteko Erakusketa, 2016. urtean 30. edizioa izango duena.